

ARESO ▶

Karnabalak, bihar eta etzi

Gaur eskolako
umeen kalejira ▶ 7



Tolosako «jai herrikoienek» berrikuntzak izango dituzte aurten

AURREKONTUA ▶ laz baino
20.000 euro gehiago izango ditu
Inauterien aurrekontuak

TOKIAK ▶ Barrakak Geltokian
jarriko dituzte eta txosnak
Artxiboan, urtero txandaturaz ▶ 2

ANOETA ▶

Dantza soka bihar egingo dute egun osoan zehar

Baserriz baserri,
plazan eta jubilatuen
elkartean ▶ 4

**TOLOSALDEA-
LEITZALDEA** ▶

Lau elkarte partaide Berria Pilota Txapelketan

Bihar, Aurrera-Saiaz
ariko da Beotibar
pilotalekuan ▶ 5

TOLOSALDEA ▶

Kaldereroak gaur eta bihar ▶ 6



Udal ordezkariak Inauterien aurkezpenean: ezker-eskuin, Zabalza, Bildarratz, Iturzaeta eta Monfort. GALTZALUNDI

Hizkuntzak:

- ★Arabiera ★ Erdera (atzerritarrentzat) ★ Italliera
- ★ Euskera ★ Frantsesa

Maila guztiak, irakasle natibo eta kualifikatuak

Lehen hezkuntzatik batxilergora bitarteko ikastaroak:

- ★ Mate ★ Fisika ★ Kimika ★ eta abar
- Goiz, arratsalde eta larunbatetan

Pausoka Akademia

M.J Iraola, 2 behe • TOLOSA • mug.: 686971962 • Tel.: 943672448

Irriarte
GERRUNTZE • LENZERIE
Korreo kalea, 7 • TOLOSA

**DENDA
IXTERA
GOAZ**

**ERABATEKO
LIKIDAZIOA**

INAUTERIAK ▶

«Jai herrikoieni» ongietorria

Ostegunean hasiko dira Inauteriak, eta hainbat berrikuntza iragarri dituzte udal arduradunek aurtengorako; iaz baino 20.000 euro gehiagoko aurrekontua dute



Ezkerretik eskuinera: Iñaki Zabalza udaltzainburua, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, Andoni Iturzaeta Kultura eta Jai zinegotzia eta Jokin Monfort, Tolosako Udaleko Festa teknikaria, atzo, Inauterien aurkezpena egiteko udalarekin egindako prentsurrekoan. AMAIA SAGASTI - GALTZAUINDI

IRATXE ETXEBESTE

Munduan ez omen da Tolosako Inauterien moduko jairik. Halaxe zioen atzo Tolosako alkate Jokin Bildarratzek, bere burua bilbotarren pare jarrita, aurtengo Inauterien aurkezpena egiteko udalarekin prentsaren aurrean egindako agerraldian. Bere aburuz, herritarrek eta herriko talde eta elkarteek zuzenean parte hartzen dutelako dira berezi Tolosako Inauteriak, eta orain arte bezala mantendu behar dira, horregatik.

Urtero planteamendu berriak egiten dituzte herritarrek, ordea, jaiak hobetze aldera, zer egin badagoela iritziak. «Bada planteamendu horiek guztiak aintzat hartu ditu Udalak azken bi hilabeteotan, eta gugana jo duten herritar, talde eta elkarte guztien iritziak aztertuta osatu dugu egitaraua, eta sortutako arazoei irtenbidea eman diegu», esan du Tolosako alkateak. Zergatik? «Festa, dantza, algarra, barne ametsak, desio ez-kutuak, gozamen hesituak, ezin esanak... Inauteriak, ho-

riek denak askatzeko egunak direlako».

Aurtengo Inauterietan ere ez dute protagonismo handirik izango jaietan ohiko diren musika emanaldiek, eta Kultura eta Jai zinegotzi Andoni Iturzaetak halaxe argudiatu du hori: «Tolosako Inauteriak bereziak badira, herritarren parte-hartzeagatik da. Ez dugu aparteko ikuskizunik ekarri, Inauterietan bestelako gauzetan gastatzeak merezi duela uste dugu-lako». Txarangak, DJak eta kontzertuak izango dira, hala ere. Berrikuntzetako bat da, hain zuzen ere, orain arteko txarangen irteera bakarraren lekuan bi egingo direla Zaldunitan.

166.000 euroko aurrekontua du Udalak aurtengo Inauterietarako: iaz baino 20.000 gehiago. Herri ekimenetik sortzen diren ekitaldiak laguntzeko eta bultzatzeko asmoarekin bideratu dute iagoera hori, eta, hortaz, herritarretatik edota herriko elkarte eta taldeetatik sortzen diren ekimenek iazko diru laguntza baino %10 gehiago izango dute. Txarangei iaz %20

igo zieten udal arduradunek diru laguntza, eta aurtenean beste %15 gehiago emango diete. Hala, hiru urteren buruan %50eko igoera aurreikusten dute txarangentzat, «orain arte laguntza eskasa jasotzen zutelako».

Lehiaketan ere, berrikuntza

Inauterietako karrozen eta konpartsen lehiaketan izan da, ordea, aldaketarik handiena. Lehiaketara aurkeztzen diren talde guztiak lagunduko ditu Udalak diruz dieta bidez, eta epaimahaiak orain arte konstante hartzeko zituen irizpideak desberdinak izango dira aurrerantzean: «Umorearen moduko kontzeptuak baloratuko dira lehiaketako irabazleak izendatzerakoan, eta lehengo diruaren lekuan, txapela jasoko dute sailkatuek», adierazi du Jokin Monfort, Jai teknikaria. Karrozen eta konpartsen lehiaketarako 45.000 euro jarri ditu Udalak eskura iazko 36.000 euroen aldean: %25 gehiago, talde guztiei emango

dielako laguntza. Berez lehengo ostiralerako eman behar zen izena lehiaketarako, baina gaur eguerdira arte bada aukera konpartsentzat.

Bestalde, eta «bizilagunen urteroko kekei irtenbidea emateko», herriko hiru toki aukeratu dituzte udal arduradunek txosnagunea eta barrakak jaritzeko: Euskal Herria plaza, Geltoki plaza eta Agiritegi atzealde. Urtero txandatu joango dira, eta hiru urtetik behin libre geratuko da guneetako bakoitza. Txosnagunea Artxibo atzean jarriko dute aurtenean, eta barrakak Geltoki plazan.

Azkenik, eta trafiko aldetik inolako arazorik sor ez dadin, «DYAko larrialdi zerbitzuekin eta Ertzaintzarekin batera» ahalegin berezia egingo dutela esan zuen Tolosako udaltzain buru Iñaki Zabalzak. Erdigunea itxita izango da larunbatetik aurrera, eta autoek Usabal industriagunean aparkatu beharko dute, hura izango delako aparkaleku handiena. Handik erdialdera autobusak jarriko dituzte orduerdiro.

XEHETASUNAK ▶

Karrozak eta konpartsak. 100 taldetik gora daude honezkeroko izena emanda lehiaketan parte hartzeko: 14 karroza, 15 plataformadun konpartsa, 75 konpartsa eta 6 aisialdi talde lehiaketaz kanpo. Lehengo ostirala zen lehiaketan parte hartzeko izena emateko azken eguna, baina antolatzailerek izen-ematea gaur eguerdira arte luzatzea erabaki dute konpartsentzat.

Kontzertuak. Gaur gauean Et Incarnatus orkestrak Leidorren eskainiko duen kontzertuak zabalduko ditu Inauterietako ekitaldiak. Astelenita gauean Plaza Berrian Ikus, Kauta eta DJ Bull ariko dira, eta Zaldunita bezperan eta Zaldunita Egunean Nestor eta Nemux DJek jardungo dute bertan.

Barrakak. Geltoki plazan jarriko dituzte aurtenean, ohi baino merkexeko: haurren 1,5 euro eta bestek 2 euro. Otsailaren 9an izango da egun herrikoia, 11:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 22:00etara. Euro bat balioko du itzuli bakoitzak.

Txosnagunea. Agiritegi atzealdean izango da aurtenean. **Zezen enbolatuak.** Ostegun Gizen egunean haurrentzako moduko xexenak ekarriko dituzte (txikiak, alegia); Ostiral Mehe egunean xexentxoak (txiki-txikiak) eta zalditxoak. Eta hiru egun nagusietan helduentzako modukoak, handiak izan gabe. Sokamuturra guztiak Plaza Zaharrean eta Solana kalean izango dira, Zaldunita, Astelenita eta Astearitita egunetan, 10:30ean. Zezenetarako sarrerren salmenta Inauteri aurretik zabalduko da: hilaren 31n, otsailaren 1ean eta 2an 17:30etik 20:30era eros daitezke, eta Inauterietan, Zaldunita, Astelenita eta Astearitita egunetan 11:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik aurrera, zezen-plazako takilan.

Txarangak. 24 txaranga ariko dira, eta horietako bakoitzean 25-30 musikari. Denen artean 36 irtenaldi egingo dituzte.

Sardinari lur ematea. Gure Txokoa elkarteak 75. urteurrena beteko du aurtenean, eta urte askoan antolatutako duen ekimena egingo dute berri ere Astearitita gauean. **166.000 euro.** Horixe da Udalak Inauterietarako aurreikusitako aurrekontua; iaz baino 20.000 euro gehiago bideratuko ditu.

iragarki laburrak ▶

LANA

Hezitzailea. Artikutzako Natur Eskolan lan egiteko hezitzaile bat behar da. Ingurumen heziketa ezagutzea edota esperientzia izatea eta EGA titulua edukitzea estimatuko da. Ezinbestekoa: gida-baimena, autoa eta informatikako oinarriko

ezagutza. Interesatuak Curriculum Vitae-a bidali ondorengo helbide honetara otsailaren 3a baino lehen: artikutzanatura@begira.com.

Aerobik monitorea. Asteasuko kiroldegia aerobik-eko monitore bat behar du. Telefonoa: 943 69 34 00. 18:00etatik 21:00etara.

Etxeko lanak eta haurra zaintzea. Neska edo andre bat behar da ume bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 943 67 58 95. 19:00etatik 21:00etara. **Irakasleak.** Irakasleak behar ditugu klase partikularrek emateko. Ilkagai eta maila guztiatarako. Curriculum

Vitae-a bidali helbide honetara: donostia@acadomia.es

BESTELAKOAK

Ileapaindegia. Tolosako J.M. Tolosa ileapaindegia ibitxia egongo da otsailaren 9tik 26ra obrak direla-eta. Barkatu eragozpenak.

JAIK ▶

San Blas jaiak, bihartik

Bihar ekingo diete San Blas jaietako izen bereko auzoan; ekitaldi ugari antolatu dituzte Emendek Arraun Kirol Elkarteok

ERREDAKZIOA

Bihar ekingo diete San Blas jaietako izen bereko auzoan. Emendek Arraun Kirol Elkarteok, Udalaren laguntzarekin, ekitaldiz beteriko lau egun antolatu dituzte. Asteburuan ez da faltako festa girorik; ondoren, asteazkenean itzuliko dira jaiak. Osteguna, San Blas, izango da egun handia.

BIHAR, LARUNBATA

12:30. Jolasak txikienentzat.
16:00. Toka lehiaketa.

18:30. Etxabe anaiekin erro-meria, 21:30ak arte.

ETZI, IGANDEA

09:00. Diana Konpenezinak txarangaren eskutik.

11:00. Hildako auzotarren eta bazkideen aldeko meza.

12:00. Amaro Dantza Taldearen emanaldia.

12:30. Aizkolarien saioa: Urrestilako Arkaitz Iriarte, eta Ibarrako Unai Otaño.

13:00. Bertsolariaren emanaldia: Angel Mari Peñagarikano anoetarra eta Andoni Egaña

zarauztarra. 18:00etan bigarren saioa eskainiko dute.

18:30. Etxabe anaiekin dantzaldia, 21:30ak arte.

OTSAILAK 2, ASTEAZKENA

18:30. Disko festa, 21:30ak arte.

OTSAILAK 3, OSTEGUNA: SAN BLAS EGUNA

11:00. Meza nagusia. Produktuak bedeinkatuko dituzte.

12:30. Toka lehiaketa, auzokoentzat eta elkarteentzat.

POLITIKA ▶

Europako Konstituzioari «ez» esateko deia egin du herritar talde batek

Herri bezala euskaldunontzat lekuri ez duela salatu dute, eta euskara, kultura eta autodeterminazio eskubidea ez dituela aitortzen

LEIRE MONTES

«Tolosarrok aspaldidanik zabaldu izan dizkiegu ateak Europari eta europarrei. Betidanik abegikor hartu izan ditugu edozein bazterretako bisitariak gure artean; horietako batzuk, sustrai sendoak bota izan dituzte gure herrian, eta gure herri hau eraikitzen lagundu izana eskertzen jakin izan duen herria da Tolosa. Horren adibidea dugu europar horien omenez Tolosak eskaini duen parke eder hau».

Europako Konstituzioaren aurkako taldea sortu dute hainbat tolosarrek, eta beren iritzia plazaratzeko Norvegiarren parkea aukeratu zuten, herenegun: «Europako herri-rik zaharrena izan arren, europarrak eta europazaleak izanda ere, konstituzioari ezetz» esateko beharra aldarrikatu zuten bertan.

Herritar talde horren esanetan, «euskaldunoi ez digute lekuri egin itunaren proposamen honetan. Izatekotan, Espainiako edo Frantziako partaidea bezala sartu nahi gaituzte atzera bueltarik gabeko Europa eredu honetan. Ez euskal herritar bezala».

Era berean, hizkuntza eta



Herritar taldea, Norvegiako lorategietan, herenegun iluntzean. J.SAIZAR

kultura aintzakotzat ez dutela hartzen salatu dute: «Gehienez ere, Espainiak eta Frantziak aitortzen diguten maila berean jarri nahi dituzte euskara eta gure kultura: bigarren mailan, hutsaren hurrengo, kultura eta hizkuntza nagusien menpek».

«Euskaldunon eskubide zibilak eta herri bezala dagokigun autodeterminazio eskubidea» ere itunan ez dutela aitortzarik kritikatu dute herritarrek; herritar bezala lekuri ez dutela diote, merkatu handi batego partaidea soil bezala sartu nahi dituztela, eta hori onartze-

ko prest ez daudela berretsi dute.

Haiena ez dela kontrako ahots bakarra ere gogoratu dute: «Gure inguruan ez ezik, Europa osoan gero eta indartsuagoa da konstituzio-itun honen aurkako ahotsa. Eta guk ere gure ahotsa entzunarazi behar diegu, gure ahotsa kontuan hartu behar dutela ulertarazi behar diegu». Horregatik, tolosar guztiak animatu nahi dituzte ezezko botoa ematera: «ezezko botoa eskatzen dugu. Gure botoa alferrikakoa ez delako, eman zure botoa: Konstituzio honi ez».

MUSIKA ▶

Hedtrip eta Gaizkiñe, gaur, Bonberenean

Gaur, 22:30ean, Bartzelonako Hedtrip taldeak eta Gaizkiñe kontzertua eskainiko dute Bonberenean. Inauterien ondoren, Koma (otsailak 19), Xabier San Sebastian (25), Lehendakaris muertos eta Memo (martxoak 4) eta Pi LT eta Izaera (12) izango dira etxean.

EUSKARA ▶

Korrika Batzordearen bilera, gaur

Aurtengo Korrikarako gero eta gutxiago falta dela eta, Tolosaldeko Korrika ardura-dunek bilerara deitu dituzte eskualdeko herritarrek. Asteazkenean ziren biltzekoak, baina elurteagatik atzeratu zuten hitzordua. Gaurko egun dute deia, 20:30ean, AEK euskaltegian (Kale Nagusia).

MUSIKA ▶



Troika diskoren aurkezpena, herenegun, Donostian; tartean, Miguel, Juantxo eta Xabi Zeberio anaia tolosarrak. IMANOL OTEGIA, PRESS

‘Troika’-ren Inauteri doinuak, gaur

Inauteri doinuek hartuko dute gaur Leidor: 20:15ean hasita, Et Incarnatus orkestrak Troika kontzertua eskainiko du. Emanaldi berezia izango da, gainera; musikaren osagarri gisa, beste hainbat elementuk hornituko baitute saioa: Inauterietako irudi zahar nahiz berriz osaturiko ikus-entzunezkoa, argi eta soinu muntaia, eta hamaika ustekabe. Troika diskoa herenegun aurkeztu zuten, Donostian. Emanaldirako sarrerak zenbatuak izango dira, eta 19:00etatik 21:00etara egongo dira salgai, Leidorreko leihatilan.

HITZALDIA ▶

Nerabezeroaren inguruan solasean Orixen

Orixen institutuak Nerabezeroa izeneko hitzaldia antolatu du, DBHko 1., 2. eta 3. mailako ikasleen gurasoentzat. Maribel San Sebastian psikologoak eskainiko du, astelehenean, 18:30ean, institutuko 1. zikloko liburutegian.

HAUR ANTZERKIA ▶

Asvinenearen saioa, gaur, Haur Liburutegian

Adunako Asvinenea taillerak Bi eta zazpi edo zazpi eta bi 3-9 urte arteko haurrentzako ikuskizuna eskainiko du gaur, 18:00etan, Haur Liburutegian. Antzerkiaz eta txotxongiloez gozatzeko aukera izango dute txikienek.

XAKE ▶

Eskolarteko Txapelketari ekin diote

Eskolarteko Txapelketari lehen jardunaldia jokatu dute eskualdeko xakelariak. Infantiletan, Jokin Mendia (Hirukide-Tolosa) da lehena. Alebinetan, Aitor Alkorta eta Xabier Corredarak (Jesusen Bihotza-Villabona) 4 puntu dituzte, eta Aimar Intxaurrendok (Samaniego-Tolosa) 3,5. Benjaminetan, Aitor Villena (Jesusen Bihotza-Villabona) da lehena, Gaizka Iruretagoiena (Pello Errota-Asteasu) bigarrena, eta Eneko Alkorta (Jesusen Bihotza-Villabona) hirugarrena. Nesketan, Oihana Etxenikek (Anoetako Ikastola) 3 puntu ditu, Amaia Ugartemendiak 2,5 eta Sara Zabalak 2 (biak Laskoraingoak-Tolosa). Kadeteetan, Joxe Mujika (Uzturpe-Ibarra) da liderra. Bigarren jardunaldia bihar jokatuko dute, 11:00etan, Tolosako Xake Elkartearen egoitzan.

ANOETA ▶ DANTZA SOKA

Dantzatzeko eguna iritsi da

Dantza sokako taldea bihar goizean abiatuko baserriz baserri saioak egitera

IMANOL GARCIA

2003an, urte askotako etenaren ondoren, dantza soka egin zen Anoetan, herriko gazteen ekimenez. Garai hartan ohitura horri urtero eusteko asmoa zegoen arren, iaz ez zen dantza sokarik egin Anoetan. Aurten gauza bera gerta ez zedin, joan den azaroan Anoetarrok Auzolanean plataformako kultura taldea antolaketa lanetan hasi zen, bihar, kalderero egunez, berriro ere dantza soka egin zedin herrian.

«Azaroan bertan hasi zen jendea lanean, dena antolatzen: jarri ziren zerrendak, herritarrekin hitz egin zen, parte hartzera anima zitezen, bati eta besteari eskatu zitzaion musika jotzeko, dantza erakusteko, bilerak antolatzeko...», azaltzen dute antolatzailleek. 70en bat neska-mutil bildu dira aurten, 12 urtekoekin hasi eta,



Dantza-sokarako prestatzeko Edurkako pabilioietan egindako entseguetako bat. HITZA

hortik gora, nahi duen guztiak izan du lekua taldean.

Bihar goizeko 8:00etan bilduko dira herriko plazan. Goiza baserriz baserri pasako dute dantzan, ohitura zaharrei jarraiki. Eguerdian parterako herriari izango dira eta, plazara iritsi aurretik, Alkartasuna herriko jubilatuen egoitzaren aurrean egingo dute dantza

saioa, 12:45ak aldera. «Mereziko digu bertan gelditzeak, izan ere, garai bateko dantza sokan parte hartu izan zuen herritar hainbati dantza egiteko», diote antolatzailleek. Jubilatuen egoitzatik plazarako bidea egingo dute, eta bertan, ordubatak aldera, mutilen dantza soka egingo dute. Handik Kuku elkartera, «ondo merezitako ba-

barrun jatea egitera». Indarrak bildu ondoren, 17:00ak aldera, plazara hurbilduko dira berriro, nesken dantza soka egitera.

Ondoren, erromeria plazan. «Ikasitakoak eta ikasi gabekoak egin ahal izango dituzte nahi duten guztiak. Dantza, musika, edaria, taloak... Izango dugu gozatzeko parada», azaltzen dute antolatzailleek.

VILLABONA ▶ GIZARTEA

Udalak aho batez onartu du presoen estatus politikoa eta Euskal Herriratzea eskatzen duen mozioa

Euskal Herriaren «hitza eta erabakia» gauzatzeko bidean presoen parte-hartzea aldarrikatzen du

I. GARCIA

Villabonako Udalak aho batez onartu zuen herenegun *Estatus politikoaren alde, euskal presoak Euskal Herrira izene-*

ko mozioa. Aurretik Amnistiaren aldeko mugimenduak aurkeztutako mozioaren ondoren adostutako testua onartu zen.

Onartutako mozioan azaltzen denez, «printzipio huma-

nitarioekin, gizaki ororen eskubide eta askatasunarekin bai eta herri bezala dagozkigun eskubideen alde gure konpromisoa irmoa agertu nahi dugu». Gainontzeko hiritarren gisan, «euskal preso politikoei, Euskal Herriaren hitza eta erabakia gauzatzeko bidean zuzenean eta inongo trabarik gabe parte hartzeko duten eskubidea» aldarrikatzen dute. Bestalde, sakabanaketa eta isolamendu egoerak behin betiko bukatzeko eskatzen dute «euskal presoek, euren etxe eta senide eta lagunengandik hurbil egoteko duten eskubidea berretsiz».

Mozioaren beste puntu batean Espainiako Gobernuak eta ETAK «benetako bake prozesu

batean, euskal preso politikoen arazoari heldu behar diotela» eskatzen dute, «konponbide eta akordioak lortzeko berrondate eta ausardiarekin». Udala prest agertzen da «euskal presoek eta euren senideen aurka ezartzen den zigor gehitua den dispertsio politikaren aurka lan egiteko konpromiso zehatzak hartzeko». Azkenik, mozio honen edukia Villabonako etxe guztietako buzoietara helaraziko dira bando bidez.

Amnistiaren aldeko mugimenduak azaltzen duenez, egun sei dira dispertsioaren ondorioz urrun dauden preso bilabonatarak eta denak 500 kilometro baino urrunagoko distantzian daude.

**LIZARRIBAR**

OINETAKOAK

orain merkeago

Arostegieta kalean • TOLOSA

VILLABONA ▶

Presoen aldeko mus txapelketa bihar Zentroan

Presoen aldeko mus txapelketa egingo da bihar Zentro tabernan, 16:00etatik aurrera. Izen ematea 15:30ean irekiko da eta bikote bakoitzak 12 euro ordaindu beharko ditu. Lehenengo bikoteak arkumea eta euskal produktuen saskia jasoko du; bigarrenak txerrikumea eta saskia; hirugarrenak txuleta eta laugarrenak oilaskoak.

VILLABONA ▶

Behar-Zanako kadeteen partida bihar Amasan

Amasako pilotalekuan, bihar, 12:15ean, Behar-Zanako kadeteek Udaberri Txapelketako partida izango dute Ilunperen kontra.

IRURA ▶

Tolosaldeko txapelketarako kanporaketak

Zaharren egoitzan Tolosaldeko txapelketarako mahai jokoen kanporaketak jokatu dira asteartean, 18:00etan. Izen emateko bertara azaldu behar da. Seiko urrea, musa, punta, eskoba, toka eta botea dira jokoak.

IBARRA ▶

Ez ohiko bilkura egingo da gaur udaletxean

Ez ohiko bilkura egingo da gaur Ibarra udaletxean, 13:30ean. Bertan gai bakarra jorratuko da: otsailaren 20ko Europako Konstituzioaren erreferendumerako hautesmahaietako partaideak hautatzea.

ADUNA ▶

Ipuin kontaketa gaur arratsaldean Kultur Aretoan

Ipuin kontaketa saioa izango da gaur arratsaldean Kultur Aretoan, 18:00etan. *Xalto ta Brinko Zabarre pirataren itsasontzian* ipuina entzuteko aukera izango dute haurrek.

PILOTA ▶



Tolosa-Bidegoiango Aurrera-Saiatz taldea, iazko finalean. HITZA

Abian da II. Berria Txapelketa

Bihar Beotibar pilotalekuan jokatuko du Aurrera-Saiatz taldeak, 17:00etan

NOELIA LATABURU

Urtarrilaren bigarren astean hasi zen Berria Pilota Txapelketaren bigarren edizioa. Hiru hilabetez partidak jokatuko dira kategorian ezberdinetan, kadeteetan, jubeniletan eta nagusietan, hain zuzen ere. Apirilaren 8an, 9an eta 10ean, berriz, final handia jokatuko dute. Iragan asteburuan bigarren jardunaldiko hiru kanporaketa jokatuko ziren.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko pilota taldeek ere parte hartzen dute txapelketa honetan. Leitzako Aurrera taldea, Tolosa eta Bidegoiango Aurrera-Saiatz taldea, Tolosako San Esteban taldea eta Amezetako Zazpi Iturri dira eskualdeko talde hauek.

Beotibarren lehendabizikoz

Txapelketaren aurkezpenean, antolatzaileek laguntza eskatu zuten partaideen herrietan ere final hamaseigarrenetako partidak bertan izateko. Gaiantzekoak, Altzan, Hernanin, Urnietan eta Aginagan izango ditzuzte. Hori dela eta, bihar lehendabiziko aldiz Beotibar pilotalekuan jokatuko da txapelketa honetako norgehiagoka bat. Aurrera-Saiatz etxeko tal-

EGUTEGIA ▶

Tolosaldeko eta Leitzaldeko pilota taldeek jokatuko dituzten datozen partidak.

PARTIDAK

Aurrera-Saiatz. Bidegoiango taldea Usansolo Amorebietako taldearen aurka arituko da bihar, Beotibarren 17:00etan.

Aurrera. Leitzako taldea Huarteren aurka arituko da otsailaren 20an.

San Esteban. Tolosarrekin Txarutaren aurka jolastuko dute otsailaren 6an.

Zazpi Iturri. Amezetakoekin Lemoaren aurka jolastuko dute otsailaren 11n.

ko garen, taldea aldatu egin delako». Gainera, txapelketa honetan ez da nahikoa bikote on bat izatea, izan ere talde lanak du garrantzia. Aurreko urtean Galarragaren taldea finalera heldu zen —Zazpi Iturriren aurka galdu zuen— eta «hau guretzat okerragoa da, arerioa gogo handiagoarekin dator eta». Dena den, itxaropentsu azaltzen dira partidaren aurrean.

Bestalde, Tolosako eta Bidegoiango erakundeen ardura falta ere salatu dute, izan ere «entrenatzeko oso ordu gutxi ematen dizkigute eta gazteentzat oso txarrak dira gainera». Denen artean konpon daiteke arazoa, baina kexuei jaramonik egiten ez dela salatu du pilota eskolako arduradunak.

Leitzako Aurrera final zortzi-erenetako sailkatu da eta arerio zaila egokitu zaio bigarren partidan honetako, izan ere final hamaseigarrenetan Oberena favoritoa kanporatu zuen Huartek. Otsailaren 20an ariko dira parez pare bi talde hauek. Zertxobait gehiago itxaron behar ko da Tolosako San Esteban taldea kantxan ikusteko, izan ere tolosarrekin otsailaren 6an jokatuko dute Txarutaren aurka. Amezetako Zazpi Iturri taldea, berriz, Lemoaren aurka ariko da otsailaren 11n. ◀

GUTUN@K ▶



Hau lotsa

Hau lotsa ematen digun Amezketa bezalako herri batean Julian bezalako alkate bat izateak. Hau lotsa. Aspalidiko esaera da lotsarik ez duenak besteri ematen diola eta egia latza. Hamaika ikusteko jaiok garena ere garai bateko esaera da, eta gaur ere egia.

Hasieratik hasi zen nabarmentzen Julian. Julianen handinahia, alkatenahia. Amezketa hauteskundeak irabazi gabe alkate jarri den lehenengo alkate da. Hasiera lotsagarria, beraz. Ez baita herriak aukeraturako alkate. Hala ere, bera alkate eta harro gainera. Lagunak halakoak.

Alkate jarri eta lasterrera turbinaren kontua etorri zen. Lehen, bere taldea zentrala berritzearen kontra egon ondoren, handikiro ospatu zuten zentralaren inaugurazioa, traje eta gorbatarekin. Oso dotore. Lotsarik ez. Eta gero, zentralako turbina zaharra etxera eraman zuen. Nahiz eta Amezetako Udalak, Tolosako Udalak eta EVEk eginiko bilera aktak argi jartzen duen turbinan Amezetako Udalarantz izango dela, deritzon erabilpena emateko. Han dago oraindik turbina Julianen zerran.

Araukak eta legeak aipatzen ditu Julianek, eta bere taldeko askok ere bai, ahoa lotsagabe zabalduz. Lege kontuak alajaina. Lehen lege-haustea, morala behintzat, Udaletxean sartzean egin zuen/zuten. Bigarrena, turbina etxera eramatean. Eta hirugarren bat ere izan da, nabarmenenak bakarrik aipatzearen.

Hirugarrenean, zer eta bere zerra hazten ari da baimenik gabe. Eta oraingoan ere, legerik bete gabe. Bere mesedera-ko legeak bakarrik bete nahi ditu Julianek, baina, legeak betetzekotan denak bete behar dira. Zerra hazteko beharra baduzu, gu ez gaude horren kontra, baina, beste edozein herritarrek bezala legea bete: arauen arabera

proiektua egin eta lizentzia lortu.

Herri guztiko obra garrantzitsuak paralizatuta daude arau subsidiarioak berritu artean. Aurreko Udalak hasita utzi zituen arauak bere erara aldatu eta moldatu ditu. Etxea berritu nahi duen jendea obrak hasteko baimenik gabe dago. Obra txikiren bat egiten hasi denari bera joan zaio kargu eske, legea betetzeko eskatzera. Eta bera baimenik gabe obran. Oso polita. Lotsagarria.

Gainera, lotsagarrikeria handiagotzeko, jendea kexatzen hasi dela ikusita, bere obra egiteko baimena eman dio bere buruari dekretuz. Hori da hori legea betetzea. «Hemen nik agintzen dut, nahi dudana egiten dut eta herria bost inporta». Ez, Julian, ezetz.

Askotan esaten da nolako herria halako alkate. Baina gu ziur gaude, amezketarrak santuak ez bagara ere, alkate hobe merezi dugula, duina, zintzoagoa, umilagoa...

Idatzi honekin amezketarrek eta ingurukoak ohartarazi nahi ditugu Amezetan gertatzen denaz jabetu daitezela. Batzuk ilegalizatu zituztelako jarri zen alkate Julian, inor konturatu ez turbinaren etxera eraman zuen... Horrelako gauzak urrunekoak, arrotzak gerta daitezke askorentzat, Udaleko kontuak gertuegiti jarraitzen ez dituztenentzat, baina obrarena begi-bistakoa da. Joan eta ikusi zer egiten ari den, eta galdetu ze proiektu eta ze baimenekin hasi den obran. Lotsagarria.

Gainera, bide batez, zerrarako bisitatu inguruko erreka zabortege bihurtuta dagoela ikusteko balioko du. Lotsagarria. Herriko pertsonarik ilegalena eta lotsagarriena daukagu alkate. Amezetak ez du hau merezi. Lotsa ematen digu Julian, pasa etxera.

MAIDER ROMO, JOSE MARI AMUNDARAIN, GOTZONE ZUBILLAGA ETA JESUS IÑURRITA (AMETZAK TALDEA) ▶ AMEZKETA.

bede BEHERAPENAK '05



Brooklyn Koltxoia

LEHEN: 421 €
ORAIN: 295 €

neurria 135 x 190 cm



Inoiz ikusi gabeko salneurriak

Atsedenerako osagaietan

oheak • nordikoak • burkoak
koltxoiak • somierak • funda nordikoak

Atseden hartu nahi al duzu?



Dendak

Elola Altzariak
Lizardi plaza, 2 • TOLOSA • ☎ 943 65 29 01
Kanpainaren hasiera eta bukarea herritako edo autonomi erkidego bakoitzaren legegileekin adostuta

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Baliarrain. Medikua: 88 90 03

Berastegi-Elduain. Medikua:

68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarralde. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika: 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRIAOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 67 04 20

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Morant, R. Zabalarreta 1

(Tolosa). 943 67 38 49

Erbiti, O. Lizarraga7 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publi@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaldea. 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶



Amazabal kalea, 37-behea
31880 LEITZA (Nafarroa)
Tel.: 948 51 05 34

Berrobi. Eraikuntza berriko azken etxe unifamiliarrak salgai. Hiru bainugela, bi lorategi, sukualdea jarrita. 306.516,17 e.

BERASTEGI ▶ INAUTERI EGUNA

Mozorroak nagusituko dira biharko egunean

Arratsaldean ospatuko dute Inauteri eguna; txokolatea, mozorroak eta afaria izango dira

I.TERRADILLOS

Orain 40 bat urte bazen Inauteriak ospatzeko ohitura Berastegin eta pasa den urtean erre-kuperatu egin nahi izan zuten herritarrek urtetan galdutakoa herriari bizia emateko. Garai hartan egiten zena mantentzen ez bada ere, mozorroak nagusi izango dira bihar bigarren urte Inauteri Egunean.

Arratsaldeko 18:00ak inguruan hasiko da festa haurren dantza taldeak eskainiko di-

tuen Inauterietako dantzekin. Ondoren mozorro lehiaketa eta Guraso Elkartek prestatutako txokolatada izango dira Urepele elkartearen. Poteoa egingo da gero eta 21:30ean afaria Main-tzene etxearen azpian. Mozorroturik joatea beharrezkoa izango da. Afalondoren festak kalean jarraituko du.

Egun honetan aterako duten diruarekin Aldin kultur elkarte-ari lagunduko zaio hauek *Aidanan* urtekaria argitaratu ahal izan dezaten.



Mozorroak izango dira nagusi bihar Berastegin. HITZA

KALDEREROAK ▶

IÑIGO TERRADILLOS

Urtero bezala iritsi da etxetik zartagi eta mailua atera arropa aproposak jantzi eta soinuua kaleetan zabaltzeko unea, gaur eta bihar eskualdeko zenbait herritan kaldereroak izango baitira. Iruran, Anoetan, Ibarran, Zizurkilen eta Tolosan hain zuzen ere.

18:30ean aterako dira Irurako plazatik Loatzo musika eskolakoak, txaranga, astoa eta gurdirekin. Anoetako plazara iristean Ateaga elkartekoek prestatutako eta gurasoek banatuko duten txokolate beroa izango dute zain.

Ibarran Loatzo musika eskolakoak eta Hauspoa elkartearen ariutako dira antolaketan. 18:30ean aterako dira plazatik txaranga eta karrozarekin herria gurutzatu eta berriro hara bueltatzeko. Plazan Kalderereto hiru abesti kantatuko dituzte euskaraz, eta ondoren, txorixo pintxoak dastatzeko aukera izango da.

Herritarren parte-hartzea eskatu dute eta, era berean, az-

Kaldereroak aterako dira Inauteriak badatozela iragarritz

Zartagia eta mailua eskuan direla burrunba zabalduko dute kaleetan gaur eta bihar eskualdeko hainbat herritan

ken egunetan gertatutakoan aurrean emakume eta gizonen berdintasuna bultzatzen dutela azaldu dute.

Zizurkilen, Pedro Mari Otaño eskolatik aterako dira 15:15ean kaldereroak mailuekin zartagiak kolpatuz eta txikien traktorean direla Joxe Arregi plazara iristeko.

Bestalde, Tolosan bihar aterako dira kaldereroak. Urdira Txiki elkarteak antolatzen du eta 20:00etan irtengo dira Santa Maria kaletik. Plaza Zaharrean pregoia irakurtzea egingo da eta ondoren Korreo kaletik hasi eta Santa Maria kalera bitarteko itzulia burutuko dute kaleak alaituz.



Traktore eta guzti iritsiko dira Zizurkilen Joxe Arregi plazara. u.u.

EGITARAUA ▶

IRURA-ANOETA

18:30. Irurako plazatik Anoetako plazara, txaranga, astoa eta karrozarekin. Bertan txokolatada izango da.

IBARRA

18:30. Plazatik aterako dira

txaranga eta karrozarekin. Plazan pintxoak izango dira.

ZIZURKIL

15:15. Pedro Mari Otaño eskolatik aterako dira txikien traktorean direla 16:30ak inguruan Joxe Arregi plazara iristeko.

TOLOSA (BIHAR)

20:00. Santa Maria kaletik aterata Plaza Zaharrera iristeko. Udaletzeko balkoian pregoia irakurriko dute. Ondoren, Korreo kalea, Gorriti plaza, Gorosabel, Solana eta Plaza Zaharretik igaroko dira Santa Maria kalean amaitzeko.

LEITZA ▶

Gaur plazatik
abiatuta,
manifestazioa

Euskal preso politikoeak, hain justu beren kolektiboaren izaera politikoa aldarrikatze-ko eta elkarrizketa prozesuan parte aktibo izateko helburuz, kartzeletan egiten ari diren burrukarekin bat eginez, manifestazioa deitu dute gaurko. 20:00etan aterako da plazatik eta herriko kaleetan zeharreko ibilbidea egingen dute.

LEITZA ▶

'El bosque' filmea
botako dute
asteburu honetan

Gaur 22:30etik aurrera eta igandean, 19:30etan, *El bosque* film estatubatuarra ikusteko aukera izanen da. Shyamalan-ek 2004ean zuzendutako lan hau, *The village* jatorrizko izenburuduna, 108 minutuko iraupena duen *thriller* generokoa da eta besteak beste Joaquin Phoenix, Adrien Brody, William Hurt eta Sigourney Weaver aktoreek parte hartzen dute. Filma, XIX. mende bukaerako herrixka batean gertatzen da. Oso ingurune politean dago kokatuta herri hau, basoz inguratuta. Itxuraz, ordea, Bertako biztanleak, zehazki baso horretan biziko liratekeen ustezko izakien beldur baitira eta hortik harago dagoenaz ere bai. Izua gainditzeko tenorea dute.

LEITZA ▶

Ohiko udal
batzarra egingen
dute gaur

Hilabeteko azken ostirala izaki, aurtengo lehendabiziko ohiko batzarra egingen dute Leitzako udaletxean, 21:00etatik aurrera.

ARESO ▶ KARNABALAK

Goitik behera oihalak
hartu eta kanpora

Bi egun oso-oso dituzte aresoarrek Karnabaletarako; gaur arratsaldean eskolako umeez kalejira egingen dute



Ihaz bezela aurten ere zer ikusia izanen da herri afarian. JAIONE OLAZABAL



Aurten elurretan ibili beharko dute eskelariak baina gustora. J. O.

JAIONE ASTIBIA

Aresoko Karnabalak bihar larunbata hasiko badira ere, gaur arratsaldez eskola umeeen txanda izanen da, asteburuko festaren aurrerapen gisa eta Lagun artea-ko gazteek afaria

eginen dute Pake toki elkartean, indarrak hartzeko.

Horrela bada, asteburu bate jai heldu delarik, Aresoko eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek festa egingen dute gaur 15:30etik aurrera. Guztiak egunerako prestatutako arro-

pak soinean, altxorrenen bila arituko dira eta guzti, kalejiran ibiliko, herrian barrena. Ondoren, atariko hotzak kentzeko bidea izanen dute, hartzeko aukera izanen duten txokolate beroarekin.

Gauean Lagun artekoek afaria izanen badute ere, bihar goizeko 9:00etatik aurrera eguna ongi hasteko gosaria elkarrekin egin eta baserrietara joanen dira eskera. Gazte guztiak elkarrekin ibiltzen dira: baserri bakoitzean bertakoekin jolasaldia egin, soinua jo eta dantzatu eta bertan eskaintzen dieten hamaiketako egiten dute. 25 bat lagun ibiltzen omen dira gehienetan. 15:30-16:00ak aldera itzuli, baserri guztietan izan ondoren, eta Pake toki bazkaria egingen dute eskelariak.

Modutsu berean ibiliko dira biharamonean ere, baina herriko etxeetan. Egun honetan gazteek disfrazatzeko ohitura omen dute, bezperan bakarren bat ere egiten bada ere.

Arratsaldez dantzaldia izanen da bi egunetan. Jaione Olazabal ariko da bihar; etzi, berri, trikitaliak.

Eta igandeko afaria Lagun artekoek bakarrik egingen badute ere, bihar herri afaria izanen da Pake toki bertan. Txartelak hartzeko beta bada oraindik gaur, okindegian. Afalondoan Jaione Olazabalen doinura dantzatzeko aukera izanen dute eta baita disfrazen lehian parte hartzeko ere, izan ere politenari sarixoren bat emanen omen diote eta.

Karnabalen antolaketaz Lagun artea herriko gazteen taldea arduratzen da eta bere horren maiordomoen esanetan,

KARNABALAK ▶

Hauek dira Lagun arteko gazteek Karnabaletarako prestatu duten egitaraua.

GAUR

15:30. Aresoko eskolako ikasle-irakasleak, altxorrenen bila ibiliko dira aurrera, ondoren herrian barrena kalejira egingez. Itzulerakoan, txokolatada.

21:00. Pake Toki elkartean Lagun artekoen afaria.

BIHAR

9:00. Pake toki elkartean gosaria.

10:00. Baserrietara soinuarekin joanen dira eskean Lagun arteko kideak.

15:30. Eskelariak bazkaria egingen dute Pake Tokin.

18:30etik 20:30era. Jaione Olazabalekin dantzaldia plazan. Buruhandiak ere izanen dira.

21:00. Herri afaria Pake toki.

Ondoren. Jaione Olazabal musikaririk alaituko du afalondoa. Bertan, disfrazen lehian ere izanen da.

ETZI

9:30. Pake toki gosaria.

Ondoren. Lagun arteko kideak herrian eskean ibiliko dira etxe-etxe.

Ondoren. Pake toki elkartean eskelariak bazkaria egingen dute.

17:30. Aurpegia margotzeko tailerrak izanen dituzte umeez plazan.

18:30etik 20:30era. Trikitaliak plazan.

21:00. Lagun artekoen afaria Pake toki.

ehun bat lagun espero dituzte afaritan, gazteak nahiz helduak eta gehientsuenak disfrazak soinean dituztela etorriko omen dira, «jendea disfrazatuta etortzen da eta oso afari polita izaten da. Ederki ibiltzen gara», zioten.

hitza ^{lagunen} txokoa

▶ Astebukaera honetan **Leidorren** emango den 'OBSESION' filmerako 2 sarreraren irabazlea:

NEKANE ITURBE ANTOLIN
HITZAren harpidedun laguntzaile tolosarra.

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ **GORROTXATEGI** Edertasun Zentruak oparitutako
• **LPG (loditasuna tratatzeko saioa)** edo
• **Laser bidezko depilazio saioaren** irabazle den harpidedun laguntzailea:

JUAN JOSE GOROSTEGI ESNAOLA (TOLOSA)

Gorrotxategi
Nagusia, 2 - 1. • TOLOSA
Tel.: 943 67 57 39

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urtarrilaren 28a, ostirala ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Aiztozaleak, Adura, Abotzur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amerletoa, Anoeta, Balaran, Beasanta, Berastegi, Eduain, Herrialde, Ibarra, Itxaspegi, Iruia, Larrin, Leizola, Lizartza, Oihenitz, Orosa, Tolosa, Villabona, Zuzuki **besteak:** Leizaldekoko Euskara Batzordea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jauraritzak
Kultura Saila

Eusko Jaurlaritzak
Kultura Saila

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

7

hotzena

3

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA
ARALARREN



Guardetxe: bai
Albi: bai

Pagomari: bai
Igaratza: bai

943

ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak, harpide egiteko...)

30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Aduna. *Xalto ta Brinko Zabarren pirataren itsasontzian* ipuin kontaketa Kultur Aretoan 18:00etan.

Tolosa. Haur Liburutegiak antolatutako *Bi eta zazpi edo ez zazpi eta bi* haur antzerkia eta txobongiloak Kultur Etxean 18:00etan. 3-9 urteko haurrentzat.

Tolosa. Eskualde mailako bilera Korrika 14ri buruz Arramele-AEK eskualtegian 20:30ean.

Tolosaldea. Euskal presoak Euskal Herrira lelopean hileroko kontzentrazioak ohiko tokietan, oraingoan itxialdiekin bat eginez. Alegia, Anoeta, Ibarra eta Tolosan 19:30ean eta Aduna, Altzo, Amezketza, Asteasu, Ikaztegieta, Lizartza, Villabona eta Zizurkilen 20:00etan.

Villabona. Biltoki jubilatuta eta pentsiodunen elkartearen urteko asanblada 17:30ean da 1. deialdia eta 18:00etan 2.a.

KALDEREROAK

Anoeta-Irura. Karroza, astoa eta txarangaren irteera Irurako plazatik 18:30ean.

Ibarra. Karroza eta txarangaren irteera plazatik 18:30ean.

KIROLAK

GAUR

Areto futbola

▶ Trans.Lakunza-Zarautz (Autonomikoa. Olaederra 20:30)

Esku pilota

▶ Bergara-San Esteban 2 (Binaka. Jubenil 1. maila. Bergara 19:00).
▶ Aurrera Saiaz-Anaitasuna (Binaka. Jubenil 1. maila. Ibarra 20:00)
▶ Kuku-Aurrera Saiaz (Binaka. Kadete 3. maila. Alkartasuna 20:30)

▶ Kuku-Eibar (Binaka. Jubenil 2. maila. Alkartasuna 20:30)
▶ Elordi Herrigintza-Lizardi Igeldo (Binaka. Kadete 1. maila. Ikaztegieta 21:00)-
▶ Elordi Herrigintza- Lizardi Igeldo (Binaka. Jubenil 2. maila. Ikaztegieta. 21:00).
▶ Andatze-Behar Zana (Binaka. Senior 2. maila. Usurbil 21:00).
▶ Ametsa 1-Ramunxo 10 (Palet Goma. Senior. Irura 21:00).
▶ Anaitasuna-Kuku (Binaka. Senior 3. maila. Azkoitia. 21:15)
▶ Kuku-Ikasberri 2 (Pala motza. Senior. Zumarraga 21:30).

BIHAR

Esku pilota

(Garziandia Txapelketa. Beotibar 10:15)
▶ Cerezo-Retegi/Urmeneta-Aranalde.
▶ Fraile-Garcia/Etxeberria I.a-Arrieta.
▶ Bengoetxea-Ontxalo/Etxeberria II.a-Setien.

(Elkarte arteko txapelketa)
▶ Real Sociedad-Ametsa 2 (Paleta Goma. Senior. Gaska 10:00).
▶ Real Sociedad-Behar Zana (Paleta Larrua. Senior. Atano III.a 11:30).
▶ Berastegi-San Esteban (Binaka. Kadete 2. maila. Berastegi 11:30).
▶ Behar Zana-Ilunpe (Binaka. Kadete 1. maila. Amasa 12:15)
▶ Elordi Herrigintza-1-Goerri (Binaka. Kadete 3. maila. Altzo 15:30).
▶ Elordi Herrigintza-Gazteleku (Binaka. Kadete 3. maila. Altzo 15:30)
▶ San Esteban 1-Ilunpe 1 (Binaka. Lazkao 16:30).
▶ Kuku 1-Ilunpe 2 (Binaka. Michelin 17:00).
▶ Hernani 1-Ermoipe (Binaka. Michelin 17:00).
▶ Behar Zana 2-Lazkao 3



Teknologia berriak

TOLOSA ▶ Industria, Turismo eta Merkataritza Ministeritzak teknologia berriak eta Internet sarea ezagutzera eman eta hauen erabilera bultzatzeko kanpainan burutu zuen atzo Triangulon jarritako autobusean. Egun osoan zehar eskola, elkarte eta norbanakoak izan ziren...s.

(Binaka. Bidegoian 17:00).
▶ San Esteban 2-Lazkao 5 (Binaka. Bidegoian 17:00).
▶ Elordi-Ataun (Binaka. Bidegoian 17:00).
▶ Aurrera Saiaz 1-Lazkao 4 (Binaka. Bidegoian 17:00).
▶ Murumendi-San Esteban 1 (Binaka. Jubenil 1. maila. Beasain 17:00).
▶ Ikaskirola-Aurrera Saiaz (Binaka. Senior 3. maila. Atano III.a 18:30).

Saskibaloia

▶ Aralar Kirolak-Gaztelu (Senior. Berazubi 17:00).

Areto futbola

▶ Cabanyal Valentzia-Hegoalde(Emakumezkoen Ohorezko Maila. Valentzia).
▶ Ibarra-Sestao Tubulares (1. Maila A. 18:30, Belabieta).
▶ Laskorain-Iturriondo P.Izkara (1. Maila B. 19:00, Berazubi).
▶ Tomas Mingot-Lauburu (Jubenil Liga. Logroño)
▶ Zaldibi-Cash Converters (1. A. Resti 18:00)
▶ Tinta Billabona-Altzakoa (Neskak. Olaederra 18:30).

Futbola

▶ Tolosa-Aloña Mendi (Jubenilen Euskal Liga. 16:30, Berazubi).

▶ Tolosaldea-Vasconia- (Lurraldeko 1. Maila. 15:30, Zubieta).
▶ Intxurre-Eibartarrak (Lurraldeko 2. Maila. Igoera fasea. 16:00, Elorri).
▶ Union Txiki B Touring-Intxurre (Jubenil 1. maila. Fanderia 11:30).

ETZI

Esku pilota.

(Elkarteen Arteko Txapelketa)
▶ Lazkao 1-San Esteban (Binaka. Senior 2. maila. Lazkao 10:00).
▶ Aurrera Saiaz-Zumaia 2 (Binaka. Jubenil 2. maila. Bidegoian 11:00).

Areto futbola.

▶ Ordizia Gamesa-Laskorain (Neskak. Majori 11:30).

Futbola.

▶ Peña Athletic Santurtzi-Tolosa(Kadeteen Euskal Liga.

HI GAZTE! ▶



Aldizkaria. Hi, gazte!
Zenbakia. 11.a.
Orrialdeak. 16.
Tirada. 2.500 ale.
Gai nagusia. Gazte Topagunea.
Beste gaiak. Play-station, kontaktuak, disko-liburuak...
Argitaratzailea. Galtzaundi Euskara Taldea.
▶ Nafarroa etorbidea 6 Tolosa
▶ 943 65 50 04
▶ higazte!@euskalherria.org

MUSIKA

Tolosa. Et Incarnatus hari orkestraren *Troika* diskoaren aurkezpen kontzertua Leidor zineman 20:15ean. Inauteri doinuen bertsoak eskainiko dituzte.
Tolosa. Bartzelonako Hedtrip eta Gaizkiñe taldeen emanaldia Bonberenean 22:30ean.
Tolosa. Atila y los Unos musika talde tolosarra Fronton kafetegian 23:30ean.

ZINEMA

Leitza. *El bosque.* 22:30ean zineman.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Nekane Peñagarikano. Beti bezain eder eta lirain jarraitzen duzu! Urte asko (tarako)!!



URTE ASKOAN
Asier Etxaniz (Villabona). Dagoeneko 27 urte. Jesus!!! Ondo ondo pasa eguna. Muaaaaa!!



AUPA OSKAR
Animo motel eta eutsi goiari. Besarkada bero bat eta muu handi bat. Laster egongo gara. Txamu eta Josune.

HITZA,
zorian agurren
tartea

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 beheko
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA

Mesedez, argazkia bi
egun lehenago ekarri.
Mila esker!

**HITZA-KO
JERTSE
BERRIA
ESKURA**

Gertuen duzun
egoitzan
lor dezakezu

Modelo eta kolore
ezberdinak
neska nahiz mutilentzat

Zatoz zurearen bila!
TOLOSAko eta LEITZAko
egoitzetara